

DURANGO KIROLAKen kidea zarenez, dei egiten dizut Udaletxeko 2. Pisua, Multimedia aretoan egingo den bilerara, datorren Asteazkenean uztailaren 09an, 17:00etan lehenengo deialdian eta, hala badagokio, ordubete geroago, adierazitako orduan gehiengorik ez dagoelako (*Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtziona-mendu eta Erregimen Juridikoaren Araudiaren 14.1 artikulua*).

#### GAI ZERRENDA

1. Presidentearen zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea.
2. Kudeaketa txostenia (uztaila).
3. Bidezkoa balitz, 07/2025/KN\_P1 espedientea eta dagokion lizitazio-prozesua onartzea
4. Interesesko gaien kontu ematea.
5. Eskariak eta galderak.

Se le convoca a Vd., como miembro del Consejo Rector de DURANGO KIROLAK, a la reunión que se celebrará en la Sala Multimedia, 2º piso del Ayuntamiento, el próximo **Miércoles**, día **09 de julio**, a las **17:00** horas en primera convocatoria y en segunda, si hubiera lugar, una hora después, al no concurrir mayoría a la hora señalada. (*Art. 14.1 del Reglamento de Organizaciones, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales*).

#### ORDEN DEL DÍA

1. Dación de cuentas de varias resoluciones del Presidente.
2. Informe de gestión (julio).
3. Aprobación, si procede, del Expediente 7/2025/KN\_P1 y del correspondiente proceso de licitación.
4. Dación de cuentas de asuntos de interés.
5. Ruegos y preguntas.

#### Idazkaria / La Secretaria

Durango, 4 de julio de 2025  
Iker Txertudi Gaztelu  
Presidentea / Presidente



Eletronikoki izenpeturiko agiria  
Documento firmado electrónicamente

2025-07-09

**2025eko UZTAILaren 9ko BATZARRA / JUNTA del 9 de JULIO de 2025**

**Presidentea / Presidente**

Don Iker Txertudi Gaztelu Jauna (EAJ-PNV).

**Batzarkideak / Asistentes**

Doña Mireia Elkoroiribe Zeniaonandia Andrea (EAJ-PNV).

Don Asier Perugorria García Jauna (EAJ-PNV).

Don Iker Urkiza Quilez Jauna (EH Bildu-Durango).

Doña Ane Abanzabalegi Areitio Andrea (EH Bildu Durango).

Doña Nagore Lozano Zarandona Andrea (EH Bildu Durango).

Doña Sheila González Santos (DES-SVD).

Don Jorge Varela Dordio Jauna (HE-ID).

Don Carlos David García Fernández Jauna (PP).

**Presidente berak gonbidatuak / Invitados/as a instancias del Presidente**

Don Asier Bikandi Elorriaga Jauna (Durangoko Udal-Erakunde Autonomoen Gerentea).

**Idazkaria / Secretaria**

Doña María Elexpe Arroyo Andrea.

**Tokia:** Udaletxeko 2. Solairuko batzar gela.

**Izaera:** Ohikoa.

**Hasiera ordua:** 17:00

**Amaiera ordua:** 17:25

**Lugar:** Sala de reuniones, 2 planta del Ayto.

**Naturaleza:** Ordinaria.

**Hora de inicio:** 17:00

**Hora de finalización:** 17:25

Batzordeko Presidenteak lehen deialdian batzarrari hasiera eman ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntuak aztertu dira:

Abierta la sesión por el Presidente de la Comisión en primera convocatoria, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del día y que son los siguientes:

2025-07-09

**01. Presidentetaren zenbait ebazpenei buruzko kontu ematea.**

- ✓ 2025-06-17ko ebazpena. 08/25 fakturak erlazioa ordainketa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2025-06-24ko ebazpena. 09/25 fakturak erlazioa ordainketa baimentzea, xehetasunaren arabera.
- ✓ 2025-06-26ko ebazpena. Boslan ingeniería y consultoría, S.A. (A95127825), enpresaren kontratazioa baimentzea, xehetasunaren arabera

Batzordea jakinaren gainean dago.

**02. Kudeaketa txostenetan (Uztaila).**

Informazio garrantzitsurik ezean, txostenak hurrengo aldko ekitaldiak baino ez ditu islatzen. Ezer aipatzekotan, behar bezala jakinaraziko da.

Batzordea jakinaren gainean dago.

**03. Bidezkoa balitz, 07/2025/KN\_P1 espedientea eta dagokion lizitazio-prozesua onartzea.**

Fitness aretorako makineria eta kirol-ekipamendua alokairuan (erosteko aukerarekin) hornitzeko lizitazio-prozesua abian jartzea da helburua. Leasing kontratu bat da, bost urterako, eta, ondoren, erosteko aukera izango dugu.

**01. Dación de cuentas de varias resoluciones del Presidente.3-2025, 09-04-2025 y 14-05-2025).**

- ✓ Resolución de fecha 17-06-2025. Autorizar el pago de la **relación de facturas 08/25**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 24-06-2025. Autorizar el pago de la **relación de facturas 09/25**, según detalle.
- ✓ Resolución de fecha 26-06-2025. Adjudicar la contratación de la empresa **Boslan ingeniería y consultoría, S.A. (A95127825)**, según detalle.

La Junta se da por enterada.

**02. Informe de gestión (Julio).**

A falta de información relevante, el informe sólo refleja los eventos del próximo período. De haber algo que reseñar, se informará debidamente.

La Junta se da por enterada.

**03. Aprobación, si procede, del Expediente 7/2025/KN\_P1 y del correspondiente proceso de licitación.**

Se trata de la puesta en marcha del proceso de licitación para el suministro en régimen de arrendamiento, con opción a compra, de maquinaria y equipamiento deportivo para la sala fitness. Es un contrato de Leasing, para cinco años, tras los cuales tendremos opción de compra.

2025-07-09

Horren xehetasuna (makinak, kuotak, aretoaren egitura berria, etab.), aurkeztutako dokumentazioan azaltzen da.

Zerbitzuaren enpresa esleipendunak ere hobekuntza batzuk ekarri dizkigu. 15 urteren ondoren, aretoa berritu eta modernizatu egin behar da, eta proposamen honekin lortuko dugula uste dugu. (Txertudi jauna).

Varela jaunak proposatutako materialarekin lotutako zenbait aldaketa proposatu ditu:

- Motorrik gabeko zinten kopurua handitzea.
- Polea bikoitzak. Gaur egun hiru daude, oso erabiliak, eta zerrendan bi baino ez daude.
- Aduktore bikoitzeko makinak sartzea. Horrela ez litzateke hainbeste jarri beharko eta leku gehiago egongo litzateke.
- Bikien hedapena. Gaur egun bi daude eta erlazioan bakarra dago.
- Zenbat rack daude sentadilletarako eta multipowerrerako? (izenen bidez ez ditu identifikatzen.).
- Heldulekuak eta barrak zabaltzea. Oso eskatuak daude eta jendeak beste makina batzuetara eramateko joera du.

Txertudi jaunak uste du planteamendu desberdinak daudela, baina uste du ezinezkoa dela erabiltzaile guztien neurriera egindako gimnasioa egitea. Mundu guztiari zerbitzua ematea da asmoa. Ez daki zer abantaila dituen batzuk edo besteak jartzeak.

*El detalle del mismo (maquinaria; cuotas; nueva estructura de la sala, etc.), se explica en la documentación aportada.*

*La empresa adjudicataria del servicio también nos ha aportado algunas mejoras. Tras 15 años, la sala necesita renovarse, modernizarse y consideramos que con esta propuesta, lo conseguiremos. (Señor Txertudi).*

El Señor Varela propone una serie de cambios relacionados con el material propuesto:

- Ampliar el número de *cintas sin motor*.
- *Poleas dobles*. Actualmente hay tres, muy utilizadas, y en la lista sólo hay dos.
- Incluir *máquinas de aductores dobles*. De esta forma no haría falta poner tantas y habría más espacio.
- *Extensión de gemelos*. Actualmente hay dos y en la relación sólo hay una.
- ¿Cuántos *racks para sentadillas y multipower* hay? (por nombres no los identifica.).
- Ampliar *packs de agarre y barras*. Están muy solicitados y la gente tiende a llevárselos a otras máquinas.

El Señor Txertudi entiende que haya distintos planteamientos, pero considera que es imposible hacer un gimansio a medida de todas las personas usuarias. La idea es dar servicio a todo el mundo. Desconoce las ventajas de poner unas u otras.

2025-07-09

Varela jaunak, motorrik gabeko zintei dagokienez, belauneko arazoak dituzten pertsonentzat egokiak direla erantzun dio. Egindako kontsulten arabera, badaki oso harrera ona izango dutela eta batekin ez dela nahikoa izango.

Txertudi jaunak azaldu dio rentingerako planteamenduetako bat dela bizpahiru urteren ondoren makinek izan duten harrera ezagutzea eta, horrela, gimnasioa hobetzeko abiapuntu bat izatea.

Gainera, uste du nahiko planteamendu osoa egin dela eta era guztietako entrenamendua egin daitezkeela.

Varela jaunak ez du uste osoa denik. Rentingak aukera ematen du, amaitzean, aldaketa bat egiteko. Baino iraupen bat du, orain hasten da eta berak egiten dituen proposamenak gimnasioaren egungo erabilera oinarritzen dira. Gimnasioa erabili ohi duten eta funtzionamendua ezagutzen duten pertsonen eskaerak. Bere betebeharra jendearen eskaerak ekartzea da. Proposamena mahai gainean utzi du, kontuan hartu nahi bada ere.

Txertudi jaunak uste du normala dela proposamenak ekartzea, baina azpimarratu du informazioa aspaldi bidali zela eta lehenago jasotzea eskertuko zukeela. Prozesua orain gelditzeak eta berriro aztertzeak asko atzeratuko luke dena. Durango Kirolakek edozein erabaki hartzeko, guztion iritzia kontuan hartzen dela gogoratu du.

El Señor Varela, en relación a las *cintas sin motor*, le responde que están indicadas para personas con problemas de rodilla. Según las consultas que ha realizado, sabe que tendrán muy buena acogida y que con una no será suficiente.

El Señor Txertudi le explica que, uno de los planteamientos para el renting, es que tras dos o tres de años conozcamos la acogida que han tenido las máquinas y de esta forma tener un punto de partida para la mejora del gimnasio.

Considera además que se ha realizado un planteamiento bastante completo y que se pueden realizar todo tipo de entrenamiento.

El Señor Varela duda de que sea completo. El renting da opción, al finalizar, de hacer un cambio. Pero tiene una duración, empieza ahora y las propuestas que él realiza están basadas en el uso actual del gimnasio. Peticiones recabadas de personas que utilizan habitualmente el gimnasio y que conocen el funcionamiento. Su obligación es traer las peticiones de la gente. Deja la propuesta sobre la mesa por si se quiere tener en cuenta.

El Señor Txertudi entiende que es normal traer propuestas, pero subraya que la información se envió hace tiempo y hubiera agradecido recibirlas con más antelación. Parar el proceso ahora y volver a analizarlo, retrasaría todo considerablemente. Recuerda que, para cualquier decisión a tomar por Durango Kirolak, se tiene en cuenta la opinión de todos.

2025-07-09

Varela jaunak aitortu duenez, aztertzeko proposamena duela hiru aste bidali bazitzaien (Txertudi jaunak hala adierazi du), haien ere denbora behar dute azterzeko eta zalantzak aurkezteko. Batzordean aurkeztu, eztabaidatu eta onartu behar direla. Etorkizunean horrela egitea proposatu du.

Urkiza jaunak spining bizikleten falta sumatzen du, hala jakinarazi baitzuten. Etorkizun ez oso urrun batean egingo dela ulertzen du. Adituak ez direnez, ez dira zerrendako makina bakoitzaren xehetasunetan sartu, baina enpresa esleipendunak aholkuak emango dizkiela uste dute.

Bikandi jaunak adierazi du Athlonez gain beste enpresa eta aditu batzuekin ere kontsultatu dutela. Halaber, azaldu du egiten den edozein aldaketak lizitazioa osatzen duten txosten eta dokumentu guztiak aldatzea dakarrela, eta horrek kostu ekonomikoa eta denborazkoa dakarrela.

Elkororibe andreak gaineratu du Durango Kirolakek lan arduratsua egin duela. Makina bakoitza eta zein ziren egokienak aztertu du. Hala ere, beti egongo da falta den bat, edo espero den onarpena ez duen bat, baina adituen irizpidearen arabera egin da aukeraketa. Orain, proiektua martxan jartzeko garrantzitsuena ezarritako epeak betetzea da.

El Señor Varela reconoce que, si la propuesta para su estudio se les envió hace tres semanas (como así indica el Señor Txertudi) ellos también necesitan tiempo para analizarla y presentar sus dudas. Que es en la Comisión donde se deben presentar, debatir y aprobar. Propone que se haga así en el futuro.

El Señor Urkiza echa en falta las bicicletas de spining, como así lo hicieron saber. Entiende que se hará en un futuro no muy lejano. Al no ser expertos, no han entrado al detalle de cada una de las máquinas de la lista, pero entienden que la empresa adjudicataria les habrá asesorado.

El Señor Bikandi indica que además de Athlon también han consultado con otras empresas y expertos. También explica que, cualquier modificación que se realice implica cambiar todos los informes y documentos que componen la licitación, con el consiguiente coste económico y de tiempo.

La Señora Elkororibe añade que se ha realizado un concienzudo trabajo por parte de Durango Kirolak. Se ha estudiado cada máquina y cuáles eran las más adecuadas. No obstante siempre habrá alguna que se eche en falta, o alguna que no tenga la aceptación esperada, pero la elección está hecha en base al criterio de los expertos. Ahora lo más importante para poner el proyecto en marcha, es cumplir los plazos establecidos.

2025-07-09

Spinning-eko bizikletei dagokienez, Txertudi jaunak adierazi du asmoa makineria guztia aldatzea zela. Hala ere, empresa batzuek makina oso onak dituzte, baina, bizikleta mota horien kasuan, ez dute behar dugun kalitatea lortzen. Horregatik, kontratu honetan ez sartzea eta aurrerago egitea erabaki zuten, agian ordurako kalitate handiagoko bizikletak daude.

Elkoroiribe andreak gogorarazi du hura aztertzeko proposamena ekainaren 18an bidali zela. Nahikoa denbora kontrastatzeko, kontsultatzeko...

*Luzaketa-gela desagertu egiten da. Nora eramango dira orain arte bertan egiten ziren jarduerak? (Varela jauna).* Txertudi jaunak erantzun dio antolaketa berria aztertzen ari direla eta espazioak ahalik eta modurik egokienean planteatuko direla.

García jaunak gimnasioaren erabiltzaileei ere galdezu die, baina uste du ez dela komeni lizitazioa are gehiago atzeratzea.

Planteatutako zalantza batzuen aurrean, Txertudi eta Bikandi jaunek adierazi dute dagoeneko jasota daudela aurkeztutako pleguetan.

Indarrean dauden Estatutuek eska dezaketen quorama dagoenez, bozketa egin da, eta emaitza hau izan da:

Sobre las bicicletas de spinning, el Señor Txertudi indica que la intención era cambiar toda la maquinaria. No obstante, hay empresas que disponen de muy buenas máquinas pero, en el caso de este tipo de bicicletas, no alcanzan la calidad que necesitamos. Por ello consideraron no incluirlas en este contrato y hacerlo más adelante, quizás para entonces hay bicicletas de más calidad aún.

La Señora Elkoroiribe recuerda que la propuesta para su estudio, se envió el pasado 18 de Junio. Tiempo suficiente para contrastar, consultar...

*La Sala de estiramientos desaparece. ¿Dónde se trasladarán las actividades que hasta ahora se hacían en ella?* (Señor Varela). El Señor Txertudi le responde que están estudiando la nueva organización y se irán planteando los espacios de la forma más idónea posible.

El Señor García, también ha consultado a personas usuarias del gimnasio, pero entiende que no es conveniente retrasar aún más la licitación.

Ante algunas dudas planteadas, los Señores Txertudi y Bikandi indican que ya están contempladas en los pliegos presentados.

Existiendo el quórum exigible por los estatutos vigentes, se procede a votación, con el siguiente resultado:

2025-07-09

- ⌚ Alde: EAJ-PNV (3).  
DES-SVD (1).  
PP (1).
- ⌚ Abstentzioak: EH Bildu Durango (3)  
HE-ID (1).

Proposamena onartu egin da.

Batzordea jakinaren gainean dago.

#### 04. Interesesko gaien kontu ematea.

Fitness aretoko obrak egiteko (zoladura sendotzea, kristalak berritzea, sarea modernizatzea...), gimnasioa aste pare batez ixita egongo da. Datarik egokienak zein izango liratekeen aztertu da, eta erabiltzaileei behar bezala jakinaraziko zaie.

Batzordea jakinaren gainean dago

#### 05. Eskariak eta galderak.

Ez dago.

Presidenteak amaiera eman dio batzarrari, eta nik, batzordeko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

- ⌚ A favor: EAJ-PNV (3).  
DES-SVD (1).  
PP (1).
- ⌚ Abstenciones: EH Bildu-Durango (3).  
HE-ID (1).

La propuesta queda aceptada.

La Junta se da por enterada.

#### 04. Dación de cuentas de asuntos de interés.

Para la realización de las obras de la sala fitness (refuerzo del pavimento, renovación de cristales, modernización de la red...), el gimnasio permanecerá cerrado un par de semanas. Se ha estudiado qué fechas serían las más idóneas y se informará debidamente a las personas usuarias.



La Junta se da por enterada

#### 05. Ruegos y preguntas.

No hay.

El Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta. De todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión, doy fe.

2025-07-09

TXERTUDI GAZTELU, Iker 	ELKORDIRIBE ZENIKANDANIA, Mireia	PERUGORRIA GARCÍA, Asier 
URKIZA QUILEZ, Iker 	ABANZABALEGI AREITIO, Ane 	LOZANO ZARANDONA, Nagore
GONZÁLEZ SANTOS, Sheila 	VARELA DORRIO, Jorge 	GARCÍA FERNANDEZ, Carlos David 